

2012ko ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK
JORNADAS EUROPEAS DEL PATRIMONIO 2012
BIZKAIA



Europa,
guztion ondarea



Urria kultura garaia da

Gure ondarearen alderdi ezkutuak ediren itzazu

Octubre es tiempo de cultura

Descubre lo que esconde nuestro patrimonio



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

**Bizkaiko bazter guztiak doako
jardueraz josiko dituen hilabetea.**

**Aukera aprobetxa ezazu.
Informa zaitetz: www.bizkaikoa.bizkaia.net**

Un mes cargado de actividades gratuitas
repartidas por todos los rincones de Bizkaia.

Aprovecha la ocasión.
Infórmate en www.bizkaikoa.bizkaia.net



2012ko ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK JORNADAS EUROPEAS DEL PATRIMONIO 2012

Antolaketa eta Zuzendaritza/ Organización y dirección:



Kordinatzaile orokorra / Coordinación general:

Aintzane Eguilior Mancisidor.

Edukien aholkularia / Asesoría de contenidos:

Juan Manuel González Cembellín.

Idazkaritza teknikoa / Secretaria técnica:

Iratxe Ruiz de Aguirre.

KATALOGOA / CATÁLOGO

Edizioa / edición:

Bizkaiko Foru Aldundia - Kultura Saila - BizkaiKOA.

Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Cultura - BizkaiKOA.

Testuak / Textos:

Juan Manuel González Cembellín.

Toti Martínez de Lezea (44a).

Ayuntamiento de Zeanuri (61b-62).

Itzulpena / Traducción:

Jasone Elizondo

Argazkiak / Fotografias:

Miguel Gómez-Cambroner.

Antolatzaileen argazki artxiboak / Archivos fotográficos de las entidades organizadoras.

Kultur Ondarearen Zerbitzua / Servicio de Patrimonio Cultural.

Eleiz Museoa / Museo Diocesano de Arte Sacro: 12a, 19, 24, 27a, 31a, 41, 43a, 44b, 45.

Enkarterriateko Museoa / Museo de Las Encartaciones: 48a.

Museo Zumalakarregi Museoa: 12b.

Bilbao Ría 2000: 20a.

Santi Yaniz - Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia: 14b, 53b.

Santi Yaniz: 48b.

Txelu Angoitia: 28a.

Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación:

Ouidesign

Inprimategia / Imprenta:

MccGraphics

L.g. / D.I.:

BI-1525-2012



Etorkizunean Ondarearen Europako Jardunaldietan parte hartu nahi duen edozein erakunde publikok zein pribatuk, honako helbidera idatz dezake:

Cualquier entidad pública o privada que desee participar en futuras ediciones de las Jornadas Europeas del Patrimonio puede dirigirse a la siguiente dirección:

aintzane.egilior@bizkaia.net



2012ko ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK
JORNADAS EUROPEAS DEL PATRIMONIO 2012
BIZKAIA





Baikortasun garaia

Aurreko urteetan bezalaxe, Ondarearen Europako Jardunaldiak gai baten inguruan antolatzen dira. Oraingoan historiaren garai labur baina aldi berean benetan bikaina aukeratu dugu: Erdi Aroaren bukaera. 50 bat urteko aldia -1475 eta 1525 bitartekoa, borobilduz-, non Bizkaia bandoen arteko borroken indarkeriaren ondorioz lotua izatetik, penintsulako lurralde baketsuenenetako eta oparoenetako bat izatera igaro zen.

Aipatutako guztiaren jatorria, Gaztelaren eta Flandesko portuen arteko merkataritzaren gorakadaren ondorioz hasi zen, Bizkaia berezko ararteko bilakatu baitzen. Horri esker, armadoreek eta marinelek ez eze, merkataritzarekin zerikusia zuten langile askok – erriberako arotzek, garraiolariek, estibatzaileek, ehuleek, sokagileek, errementariak... - diru ugari irabazi zuten, baita lehengaiak, jakiez eta edariez hornitzen zituzten baserriarrek eta produkzioa handitu zuten burdinolen jabeek ere -askotan, borrokak alde batera utzi eta negozio-gizon bihurtutako bandokideak ziren-.

Merkataritzako, artisautzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta burdinolekako jardura biziari esker, lurraldeko bazter guztietara dirutza handiak heldu ziren eta bizkaitarrek eskuzabaltasunez erabiltzen zituzten. Bandokide ohiak, merkataria edota baserriar xeheak nork luxu handieneko etxea eraikiko zuen, nor modurik deigarrienean jantziko zen, eliza berriaren lanetan diru laguntza opa-roena eskaintzeko... lehian zebiltzan. Hiribilduak eta elizateak tenplurik handi eta zabalenak edukitzeko norgehiagoka zebiltzan... Artelanak, liburuak, luxuzko ontziteriak... inportatzen ziren.

Hazkunde, oparotasun eta baikortasun garaiak izan ziren.

Orduko aztarna ugari heldu zaizkigu. Bizkaiak benetako "higiezinen-burbuila" bizi izan zuen, beraz, garai hartako eraikuntzaren bat ez duen udalik aurkitzea arraroa da guztiz: elizak, baselizak, dorreak, jauregiak, baserriak, harresiak eta portaleak... Eta eraikuntza erlijiosoetan, Lekeitiokoa bezalako erretaula ikaragarriak edota Flandestik zuzenean ekarritako Arteagako ekisainduaren antzeko urrezko piezak gordetzen dira. Gotiko berantiarrari jarraituz sortutako elementuak, are gehiago, kalitateari eta kantitateari erreparatuz, Bizkaia inguruko beste herrialdeekin erka daitekeen lehen estilo artistikoa.

Eta hondar materialez haratago, dokumentuek garai haietako alderdi ezberdinetara hurbiltzen gaituzte, orduko bizkaitarren bizimoduak, alegia.

Hauxe da, beraz, 2012ko Ondarearen Europako Jardunaldien helburua: 1500eko Bizkaia arrakastatsuenen espirituak kutsatzea.

1 4
-1525

Un tiempo de optimismo

Como en ediciones anteriores, las Jornadas Europeas de Patrimonio se centran en un tema. En esta ocasión hemos escogido un momento breve pero verdaderamente brillante de nuestra historia: el final de la Edad Media. Un período de unos 50 años –entre 1475 y 1525, en cifras redondas– en el que Bizkaia pasó de ser una tierra atezada por la violencia banderiza a ser uno de los espacios más pacíficos y prósperos de la península.

El origen de todo ello estuvo en el despegue del comercio entre Castilla y los puertos flamencos. Bizkaia se convirtió en su intermediario natural. Nuestros barcos llevaban al Norte lana castellana y hierro local y volvían cargados de paños. Esto daba dinero no sólo a armadores y marineros, sino también a muchos oficios relacionados con el comercio: carpinteros de ribera, porteadores, estibadores, tejedores, cordeleros, herreros... Y también a los campesinos, que les abastecían de materias primas, alimento y bebida... Y a los propietarios de las ferrerías, que vieron cómo aumentaba su producción –eran frecuentemente banderizos que fueron abandonando sus actividades violentas para convertirse en hombres de negocios–.

Esta intensa actividad comercial, artesanal, agropecuaria y ferrona distribuyó grandes cantidades de dinero hasta en el último rincón del territorio, y los vizcaínos lo gastaban con generosidad. Ex-banderizos, comerciantes o simples campesinos acomodados rivalizaban en levantar la casa más lujosa, en vestir de forma más llamativa, en contribuir más generosamente a la construcción de la nueva iglesia... Las villas y las anteiglesias competían por tener los templos más grandes, más capaces... Se importaban obras de arte, libros, vajillas lujosas...

Fue un tiempo de crecimiento, de riqueza, de optimismo.

De todo esto nos han llegado abundantes restos. Bizkaia vivió por entonces una verdadera “burbuja inmobiliaria”, así que raro es el municipio vizcaíno que no cuenta con un edificio de esta época: iglesias, ermitas, torres, palacios, caseríos, murallas y portales... Y en los edificios religiosos se conservan objetos muebles, que abarcan desde grandiosos retablos, como el de Lekeitio, hasta piezas de orfebrería llegadas directamente de Flandes, como la custodia de Arteaga. Elementos que se mueven dentro del estilo tardogótico, el primer estilo artístico en el que Bizkaia puede equipararse, por calidad y cantidad, con otras tierras del entorno.

Y, más allá de los restos materiales, la documentación nos acerca a otros aspectos de aquellos tiempos, a las formas de vida de las vizcaínas y los vizcaínos de aquellos tiempos.

Este es el objetivo de las Jornadas Europeas de Patrimonio 2012: contagiarnos del espíritu de aquella exitosa Bizkaia del 1500.



7

5

GOMENDIO BATZUK:

Bisita egin aurretik

- **Planifikatu ondo ibilbidea.**

Esku artean daukazu programak kultur proposamen asko eta desberdinak eskaintzen dizkizu, guztiak Bizkaiko lurraldean. Programa arretaz irakurtzeko gomendatzen dizugu, planifikazio ona eginda, ahalik eta jarduera gehiagotan parte hartu ahal izateko. Gogoratu bisita asko egiteko hitzordua eskatu behar dela aurretik.

- **Baieztatu aurretik programan agertzen diren datuak.**

Katalogo hau jarduerak hasi baino dezente lehenago argitaratzen da; horregatik, datu batzuk, adibidez, ordutegiak, elkartzeko guneak eta abar, aldatu daitezke. Aukeratutako jarduerarekin batera agertzen den telefonoarekin harremanetan jarri behar zara, zehetasun guztiak baieztatzeko.

Bisita eguna

- **Jantzi arropa eta oinetako egokiak.**

Jarduera askotan, landa-bide eta -bidezidorretan zehar ibili behar da; beraz, gomendagarria da oinetako eta arropa erosoak erabiltzea. Aurrekoaz gain, euria eginez gero, eraman zira edo euritakoa. Gomendio gehiago nahi badituzu, deitu jarduera bakoitzaren telefonora.

- **Izan adeitsua taldearekin.**

Garaiz heldu; aztertu aurretik abiapuntura iristeko ibilbidea. Bisitan zehar, ez distraitu beste parte-hartzaileak eta adi egon gidaren jarraibideei.

- **Jakinarazi zure iritziak.**

Bisita amaitzen denean, jakinarazi gidari hari buruz dituzun iritziak. Gogobetetze-inkestak dauden lekuetan, mesedez, hartu minutu batzuk betetzeko. Zure iritziek hobetzen laguntzen digute.

ALGUNAS RECOMENDACIONES:

Antes de la visita

- **Planifique bien su recorrido.**

El programa que tiene entre sus manos pone a su alcance una gran cantidad y diversidad de propuestas culturales por todo el territorio de Bizkaia. Se recomienda una lectura detenida para planificarse y así poder participar en el mayor número de actividades posible. Recuerde que en muchos casos es necesario concertar cita previa para poder sumarse a las visitas.

- **Confirme con antelación los datos que figuran en este programa.**

Este catálogo se edita con bastante tiempo de antelación respecto a la fecha de inicio de las actividades, por lo que algunos datos, como horarios, puntos de encuentro, etc., pueden variar. Es necesario ponerse en contacto con el número de teléfono asociado a la actividad que usted haya seleccionado para confirmar todos los detalles.

El día de la visita

- **Vista ropa y calzado adecuados.**

Muchas de las actividades discurren por caminos y senderos rurales, por lo que es recomendable vestir calzado y ropa cómodos. En caso de lluvia, tenga la precaución de llevar además impermeables o paraguas. Para recomendaciones particulares, póngase en contacto con el número de teléfono de cada actividad.

- **Sea respetuoso con el grupo.**

Sea puntual, estudie la ruta de llegada al punto de partida con antelación. En el transcurso de la visita no distraiga al resto de participantes, siga las indicaciones del guía.

- **Comuniquenos sus opiniones.**

Al terminar no dude en comentar con el guía sus impresiones sobre la visita. En aquellos lugares donde encuentre encuestas de satisfacción, dedique unos minutos a cumplimentarlas. Sus opiniones nos ayudan a mejorar.

AURKIBIDEA /

Í N D I C E

Amorebieta-Etxano	10	Iurreta.....	38
Areatza.....	12	Karrantza	39
Balmaseda	13	Lanestosa	40
Barakaldo	13	Larrabetzu	41
Basauri	14	Lekeitio.....	42
Bermeo	14	Lezama	43
Berriatua.....	15	Mañaria	44
Berriz.....	16	Markina-Xemein.....	45
Bilbao: Arkeologi Museoa / Museo de Arqueología	17	Maruri-Jatabe.....	47
Bilbao: Berreginen Museoa / Museo de Reproducciones	19	Mungia	47
Bilbao: Eleiz Museoa / Museo Diocesano de Arte Sacro	20	Muskiz	48
Bilbao: Euskal Museoa / Museo Vasco.....	21	Ondarroa	49
Bilbao: Euskaltzaindia	22	Orduña	49
Bilbao: Foru Agiritegia / Archivo Foral.....	24	Orozko	50
Busturia	25	Otxandio.....	52
Derio.....	25	Plentzia.....	52
Durango.....	28	Portugalete	53
Ea.....	28	Santurtzi.....	56
Elorrio.....	29	Sopelana.....	56
Erandio	30	Sopuerta	57
Forua	30	Ubide.....	58
Galdakao	31	Ugao-Miraballes.....	59
Garai	31	Zaldibar	60
Gernika-Lumo	32	Zalla	61
Getxo.....	33	Zeanuri	61
Gordexola	34	Ziortza-Bolibar	63
Gorliz.....	34		
Güeñes	35		
Igorre.....	36		
Ispaster.....	37		



Amorebieta-Etxano



Amorebietaren baikortasuna 1500ean

Hitzaldia Juan Manuel González Cembellinen eskutik.

Erdi Aroaren amaiera aldean, Meseta Billboko, Gernikako edo Bermeoko portuekin lotzen zituzten Barazarreko eta Urkiolako bideek Amorebietako biztanleak aberastu zituzten. Bai merkataritzatik zuzenean, zein hiribilduak jakiz eta lehengaiz hornitzen lortutako diruarekin, udalerraren itxura aldatzeko aukera izan zuten. Horrela, elizak eta baselizak, dorreak eta jauregiak, base-riak... berreraiki eta altzari berriez jantzi zituzten. Amorebieta, urte horietan, baikortasunaren isla izan zen.

El optimismo del 1500 en Amorebieta

Conferencia por Juan Manuel González Cembellín.

Los caminos que unían la meseta a través de Barazar y Urkiola con los puertos de Bilbao, Gernika o Bermeo, enriquecieron a los vecinos de Amorebieta al final de la Edad Media. Ganaron mucho dinero participando directamente en el comercio o surtiendo de alimentos y materias primas a las villas. Y ese dinero les permitió cambiar por completo la cara del municipio: se reconstruyeron y amueblaron las iglesias y las ermitas, las torres y los palacios, los caseríos... Amorebieta reflejaba con optimismo el éxito de aquellos años.

Lekua: Zelaieta Zentroko entzunaretoa (Zelaieta parkea).

Eguna eta ordua: asteazkenak 17; 19:30etan.

Antolatzailea: Ametx Erakunde Autonomoa.

Informazioa: 946 300 650 (Zelaieta Zentroa). Astelehena-ostirala, 09:00etatik 21:00etara.

Lugar: auditorio del Centro Zelaieta (parque Zelaieta).

Día y hora: miércoles 17; 19:30 h.

Organiza: Ametx Erakunde Autonomoa.

Información: 946 300 650 (Centro Zelaieta). Lunes a viernes, de 09:00 a 21:00 h.

Etxano: Landagunea eraldatze bidean

Bisitaldi gidatua.

Ángel Larrea historialariak gidatuko gaituen ibilaldian, 1500 inguruko Bizkaiko landak gogoratuko ditugu, bertoko baserriarrak iraupen hutserako ekoiztetik inguruko hiribilduak eta portuak jakiz -sagardoa eta itsasontzietarako galletak- hornitzera igaro zireneko garaia, alegia. Horrela, landatarren bizimodua hobetu zen eta Alakao-Bekoa bezalako baserriak eraiki ahal izan zituzten, zeina beranduagokoa bada ere, aro garrantzitsu honen ondorio argia den. Horretaz gain, Etxanoko elizaren moduko tenpluak berriztatu ahal izan zituzten, non eraikinaz gain, gotiko berantiarreko tailla bikainak ikusi ahalko ditugun.

Dorreak, jauregiak, basilizak...

Bisitaldi gidatua.

1445ean Bernako dorrea suntsitua izan zen, baina 1463an berreraiki zuten eta horrek auzokoen beldurrak sorrarazi zituen. Leinuek euren dorre mehatxagarriak berregiten zituzten bitartean, baserriar aberats batzuek beste mota bateko etxe handi eta dotoreak egin zituzten, hots, eguzkia sartzen uzten zuten leiho ilarak zituzten jauregiak. Mota horretako etxebizitzan adibide dugu Bernagoitia, 1500 urte aldean eraikitako gotorretxea. Aipatutako bi eraikinak bisitatu ostean, eta beti Ángel Larrearen eskutik, Duedeako basiliza ikusiko dugu. Hau ere 1500 urte inguruan berreraiki zen eta orduko Gurutziltzatu gordetzen du.

Etxano: un mundo rural en transformación


Visita guiada.

El historiador Ángel Larrea nos guiará en un trayecto en el que recordaremos el campo vizcaíno de en torno al año 1500, que de la mera subsistencia pasó a suministrar alimentos a las villas cercanas y los puertos –sidra y galleta para los barcos–. Esto mejoró la calidad de vida del campesino, que pudo construir caseríos como Alakao-Bekoa, ligeramente posterior pero heredero de este momento de esplendor. Y renovar sus templos, como la parroquia de Etxano, donde además del edificio podremos ver algunas magníficas tallas tardogóticas.

Torres, palacios, ermitas...

Visita guiada.

En 1445 se derribaba la torre de Berna, que a partir de 1463 era reconstruida suscitando los temores de los vecinos. Pero mientras los linajes rehacían sus amenazadoras torres, algunos campesinos acomodados construían otro tipo de mansiones: palacios que abrían galerías de ventanas al sol, como en Bernagoitia, alzado poco después de 1500. Tras visitar estas dos construcciones, y siempre de la mano de Ángel Larrea, pasaremos a ver la ermita de Dueda, rehecha también al filo del 1500 y que además conserva un Crucificado de esa misma fecha.



Topagunea: Zelaieta Zentroa (Zelaieta parkea).

Eguna eta ordua: larunbata 20; 10:00etan.

Antolatzailea: Ametx Erakunde Autonomoa.

Informazioa eta erreserbak: 946 300 650 (Zelaieta Zentroa). Astelehena-ostirala, 09:00etatik 21:00etara. *Leku kopurua mugatua.*

Punto de encuentro: Centro Zelaieta (parque Zelaieta).

Día y hora: sábado 20; a las 10:00 h.

Organiza: Ametx Erakunde Autonomoa.

Información y reservas: 946 300 650 (Centro Zelaieta). De lunes a viernes, de 09:00 a 21:00 h. *Plazas limitadas.*



Topagunea: Zelaieta Zentroa (Zelaieta parkea).

Eguna eta ordua: igandea 21; a las 10:00 h.

Antolatzailea: Ametx Erakunde Autonomoa.

Informazioa eta erreserbak: 946 300 650 (Zelaieta Zentroa). Astelehena-ostirala, 09:00etatik 21:00etara. *Leku kopurua mugatua.* Zati bat autobusez egingo da.

Punto de encuentro: Centro Zelaieta (parque Zelaieta).

Día y hora: domingo 21; a las 10:00 h.

Organiza: Ametx Erakunde Autonomoa.

Información y reservas: 946 300 650 (Centro Zelaieta). De lunes a viernes, de 09:00 a 21:00 h. *Plazas limitadas.* Parte del recorrido se realizará en autobús.

Areatza

Hiribilduaren garapena

Bisitaldi gidatua.

Areatza hiribildua Gasteiztik, Barazar zeharkatuz, Ibaizabaleraino -Bilboraino- zihoan bidean sortu zen. Hasieran txikia zen: bi kale paralelok eta hauek zeharkatzen zituzten bi kanto estuk bakarrik osatzen zuten. 1500 inguruan, ordea, merkataritzaren eta siderurgiaren gorakada zela eta, hiribildua aldatu egin zen: merkatua handitu zen eta horrekin batera irabaziak eta biztanle kopurua... Hiribildua, beraz, handitu egin zen eta horrekin batera, eliza berritzez gain, kale gehiago zabaldu eta garaiko ohiturei jarraituz, hau da, estilo mudejarrari jarraituz, etxe berriak eraiki ziren.

Euskal Jaia

Euskal joko, kirol eta dantza tradizionala.

Aurreko urteetan bezala, jaialdi etnografikoa ospatuko dugu eta oraingo honetan aisiari buruzkoa izango da: jokoak, kirola eta dantza. Horretaz gain, iltze eta ferra lantegiak egongo dira, non burdinolek hiribilduaren historian izan zuten garrantzia gogoratuko dugun.

El desarrollo de la villa

Visita guiada.

La villa de Areatza nació sobre el camino que desde Vitoria-Gasteiz buscaba el Ibaizabal —y Bilbao— a través de Barazar. Al principio no alcanzó un gran tamaño: dos calles paralelas cortadas por dos estrechos cantones transversales. Pero la villa se transformó hacia 1500 debido al impulso del comercio y de la siderurgia: aumentó el mercado, aumentaron las ganancias, aumentó la población... La villa creció, renovándose la iglesia y abriéndose nuevas calles con casas decoradas a la moda, al gusto mudéjar.

Euskal Jaia

Juegos, deportes y danzas tradicionales del País Vasco.

Como en años anteriores, celebraremos una fiesta de carácter etnográfico que en esta ocasión estará centrada en el ocio: juegos, deporte y danza. Pero además habrá talleres sobre la fabricación de clavos y herraduras, en los que recordaremos la gran importancia que tuvieron las ferrerías en la historia de la villa.



Topagunea: Udaletxeko arkupea.

Egunak eta orduak: larunbata 12 eta igandea 13; 11:00, 12:00, 17:00 eta 18:00etan.

Antolatzailea: Areatzako Udala.

Informazioa eta erreserbak: 946 739 010. *Leku kopurua mugatua.*

Punto de encuentro: Pórtico del ayuntamiento.

Días y horas: sábado 12 y domingo 13; a las 11:00, 12:00, 17:00 y 18:00 h.

Organiza: Ayuntamiento de Areatza.

Información y reservas: 946 739 010. *Plazas limitadas.*



Eguna: larunbata 20.

Antolatzailea: Areatzako Udala.

Informazioa: 946 739 010.

Día: sábado 20.

Organiza: Ayuntamiento de Areatza.

Información: 946 739 010.

Balmaseda

Zubi Zaharratik San Severinoraino: historian zehar ibilaldia


Bisitaldi gidatua.

Zubi Zaharran hasita, Erdi Aroaren bukaerako historia gogoratuz, hiribilduan barrera ibiliko gara. Merkataritzari buruz hitz egingo dugu, hauxe izan baitzen Bizkaiko lehen hiribilduaren sorreraren arrazoia. Bertako auzo juduari buruz mintzatuko gara, lekuko bizilagunak 1486an bota zituzten arte, Gaztelako garrantzitsuenetako bat zelako. Hiribilduko hirigintza ezagutuko dugu, gotikoa zena bereziki. Dorretxeak eta bandokideen indarkeria gogoratuko dugu. Azkenik, bisitaldia hiribilduko beste leku emblematico baten amaituko dugu: San Severino elizan.

Del Puente Viejo a San Severino: un paseo por la historia

Visita guiada.

Arrancando del Puente Viejo recorreremos la villa recordando su historia a fines de la Edad Media. Hablaremos del comercio, razón del origen de la primera villa de Bizkaia. Y de su barrio judío, uno de los más importantes de Castilla hasta la expulsión de sus moradores en 1486. Conoceremos el urbanismo de la villa, característicamente gótico. Recordaremos las casas torre y la violencia de los banderizos. Y terminaremos la visita en otro de los lugares emblemáticos de la villa: la iglesia de San Severino.



Topagunea: Zubi Zaharra.

Eguna eta ordua: igandea 21; 12:00etan.

Antolatzailea: Balmasedako Udala.

Informazioa eta erreserbak: 946 801 356 (Enkartur). *Leku kopurua mugatua.*

Punto de encuentro: Puente Viejo.

Día y hora: domingo 21; a las 12:00 h.

Organiza: Ayuntamiento de Balmaseda.

Información y reservas: 946 801 356 (Enkartur). *Plazas limitadas.*

Barakaldo

Barakaldo, galtzada ezberdinen bidegurutze: Santa Agedatik Zubiletaraino

Bisitaldi gidatua.

Bilbidea Santa Ageda base-lizan hasiko da, zeinari Erdi Aroko biztanleek debozio handia zioten. Erdi Aroko galtzadan behera eginez, Deabruaren Zubira helduko gara. Pasabide hau Bilboren ekimenez egin zen, Gaztelatik Portugalera zihoazen merkatariek hiriraino erakartzeko asmoz. Ibilaldia antzina errota eta errederia gune izan zen eta gaur egun Barakaldon zutik irauten duen dorre bakarretako bat hartzen duen Zubileta auzoan amaituko da.

Barakaldo, encrucijada de caminos: de Santa Águeda a Zubileta

Visita guiada.

Nuestro itinerario parte de la ermita de Santa Águeda, lugar de gran devoción popular durante la Edad Media. Bajando por la calzada medieval llegaremos hasta el Puente del Diablo, construido por iniciativa de Bilbao para atraer el comercio que se dirigía a Portugalete proveniente de tierras castellanas. El recorrido finaliza en el barrio de Zubileta, antigua zona de molinos y renterías y actual emplazamiento de una de las pocas torres que quedan en Barakaldo.



Topagunea: Landeta kaleko autobus geltokia.

Egunak eta ordua: igandeak 21 eta 28; 11:00etan.

Antolatzailea: CIHMA (Barakaldoko Historia eta Ingurumen Interpretaziorako Zentroa).

Informazioa eta erreserbak: 944 971 390 / ezagutubarakaldocihma@barakaldo.org. *Leku kopurua mugatua.*

Punto de encuentro: Parada de autobuses de la calle Landeta.

Días y hora: domingos 21 y 28; a las 11:00 h.

Organiza: CIHMA (Centro de Interpretación Histórico Medioambiental de Barakaldo).

Información y reservas: 944 971 390 / ezagutubarakaldocihma@barakaldo.org. *Plazas limitadas.*

Basauri

Dorre izatetik jauregi bihurtzera: Arizen kasua

Bisitaldi gidatua.

Ariz XIV eta XV. mendeetan ganboarren aurka borrokatu zen leinu baten egoitza izan zen. Garai hartan dorre bat izan omen zen lekuan, gaur egun, XVI. mendearen hasieran gotiko-errenazentista estiloari jarraituz eraikitako jauregia ikus dezakegu. Gerrarako beharrez, bakerako egin zen eta orduan Bizkaia bizi zuen baikortasun eta oparotasun garaia gogora ekartzen digun etxe handi eta dotorea da. Bisitaldia Juan Manuel Gonzálezek eraikuntza mota honi buruz emango duen hitzaldiarekin osatuko da.

De la torre al palacio: el caso de Ariz

Visita guiada.

El lugar de Ariz fue sede de un linaje que luchó en el bando gamboíno durante los siglos XIV y XV. Tal vez contara con una torre, pero lo que hoy podemos ver sobre su solar es un palacio gótico-renacentista levantado ya en los primeros años del siglo XVI. Una mansión construida no para la guerra, sino para la paz, que nos recuerda el optimismo y la bonanza económica que vivía Bizkaia en aquel tiempo. La visita se complementará con una charla sobre este tipo de construcciones impartida por Juan Manuel González Cembellín.



Topagunea: Arizko Dorrea (Frantsizko Kortabarria, z/g).
Egunak eta orduak: larunbata 27 eta igandea 28; 11:00etan.
Antolatzailea: Basauriko Udala.
Informazioa eta erreserbak: 944 666 300 (Basauriko Udalaren Herritarren Arretarako Bulegoak, Ordutegia: 9:00etatik 19:30etara).
944 666 642 (San Migelko Taberna Mayor, Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara).
www.basauri.net. *Leku kopurua mugatua.*

Punto de encuentro: Torre de Ariz (Frantsizko Kortabarria, s/n).
Días y hora: sábado 27 y domingo 28; a las 11:00 h.
Organiza: Ayuntamiento de Basauri.
Información y reservas: 944 666 300 (Oficinas de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Basauri. Horario de 9:00 a 19:30 h.).
944 666 642 (Taberna Mayor de San Miguel. Horario de 9:00 a 14:00 h.).
www.basauri.net. *Plazas limitadas.*

Bermeo

Bermeo "caput Bizkaye"

Bisitaldi gidatua.

Bermeo "Bizkaiko burua" izan zen, Bilbok lekua kendu zion arte. Hala ere, Erdi Aroaren bukaeran berpiztea lortu zuen eta garai horretako aztarnak garrantzitsuak dira. Hiribilduko harresien lekuko zen San Juan portalea igaroz eta Talaia zeharkatu ostean, Ertzila dorrera helduko gara, portu zaharraren gainean eraikitako jauregira, alegia. Beherago, Santa Eufemia ikusiko dugu, non jauntxoek zin egiteko eta onetsiak izateko egiten zuten ibilbidea amaitzen zen. Azkenik, harresiaz bestaldean, San Franziskoren komentua eta bertako klaustro aparta aurkituko ditugu.

Bermeo "caput Bizkaye"

Visita guiada.

Bermeo fue la "cabeza de Bizkaia" hasta que Bilbao le usurpó el puesto. Pero a fines de la Edad Media conoció un resurgir que ha dejado importantes huellas. Del portal de San Juan, testigo de las murallas de la villa, y a través de la Atalaya, llegamos a la torre de Ertzilla, en realidad un palacio situado directamente sobre el puerto viejo. Más abajo está Santa Eufemia, donde terminaba la ruta juradera que seguían los señores de Bizkaia para ser aceptados. Y ya extramuros el convento de San Francisco y su magnífico claustro.



Topagunea: San Juan Portalea (Doniene kalea).
Egunak eta orduak: asteartea 16, asteazkena 17, osteguna 18 eta igandea 21, 11:30etan. Larunbata 20, 11:30 eta 17:00etan.
Antolatzailea: Bermeoko Turismo Bulegoa.
Informazioa eta erreserbak: 946 179 154 / turismoa@bermeo.org.
Leku kopurua mugatua.

Punto de encuentro: Portal de San Juan (c/Doniene).
Días y horas: martes 16, miércoles 17, jueves 18 y domingo 21, a las 11:30 h. Sábado 20, a las 11:30 y 17:00 h.
Organiza: Oficina de Turismo de Bermeo.
Información y reservas: 946 179 154 / turismoa@bermeo.org.
Plazas limitadas.

Berriatua



Aranzibia dorrea

Bisitaldi gidatua.

Aranzibia dorrea Artibai ibaiaren ibi baten altxatzen da. Aranzibiarrek bertatik menderatzen zuten inguru eta bertan babesten ziren etsaiengandik. Gatazkak ezagutu ditu, baita egoera bitxiak ere, esate baterako, 1440an inguruko heretikoen jazarleak Berriatuako biztanleen erasoetatik babesteko bertan gorde zirenekoa.

1500 urte inguruan, leinuen arteko borrokak amaitu zirenean, dorrea berregin zuten aro berriari moldatzeko. Garai horretakoak da bigarren solairuko gela bikaina: barrualdean harrizko eserleku dotoreak dituzten leiho zorrotzek argitzen duten eremu zabala. Horretaz gain, jatorrizko egurrezko egitura gehiena mantentzen du, zeinak habe zabalak eta tailla geometrikoz dekoratutako zutikoak dituen, baita erdi-erdian leinuaren lurretan hazten ziren sagarrak ardo bihurtzeko erabiltzen zen itzelezko dolarea ere. Beraz, Juan Manuel González Cembellín eskutik, Bizkaiko dorre garrantzitsuenetako bat bisitatzeko aukera paregabea da.

La torre de Aranzibia

Visita guiada.

La torre de Aranzibia se alza dominante sobre un vado del río Artibai. Desde allí los Aranzibia dominaban su entorno y desde allí se defendían de sus enemigos. Ha conocido batallas, pero también situaciones curiosas, como cuando hacia 1440 se refugiaron en ella los perseguidores de los herejes de la zona, atacados por los vecinos de Berriatua.

Hacia 1500, al finalizar las guerras de bandos, fue rehecha adaptándola a los nuevos tiempos. De ese momento es su magnífica sala superior: un amplio espacio iluminado por ventanas apuntadas que al interior cuentan con unos hermosos asientos de piedra. Conserva además gran parte de su esqueleto de madera original, con gruesas vigas y pies derechos decorados con tallas geométricas. Y en medio de todo ello un gigantesco lagar en el que las manzanas de las tierras del linaje eran transformadas en sidra. Una oportunidad única de visitar, guiados por Juan Manuel González Cembellín, una de las más importantes torres de Bizkaia.

Topagunea: Udaletxe aurreko plaza (bertatik Aranzibiaraino autobusez joango gara).

Eguna eta ordua: larunbata 20; 18:00etan.

Antolatzailea: Berriatua Elizateko Udala.

Informazioa eta erreserbak: 946 137 030. *Leku kopurua mugatua.*

Punto de encuentro: Plaza frente al ayuntamiento (desde allí se irá hasta Aranzibia en autobús).

Día y hora: sábado 20; a las 18:00 h.

Organiza: Ayuntamiento de la Anteiglesia de Berriatua.

Información y reservas: 946 137 030. *Plazas limitadas.*

Berriz



Andikonako santutegia, landa inguruko aldaketan lekuko

Bisitaldi gidatua.

Andikona kofradia baten, hau da, bere inguruan mendeetan zehar bildu izan den elizarte landatar baten gunea da. Bertan zehar ibiliz, Erdi Aroaren amaiera aldean landa-munduak izan zuen aldaketetara hurbilduko gara: gaur egun ezagutzen ditugun baserrien agerpena, laborantzen hedapena, errota eraberritzea (horietako bat bisitatuko dugu, Txanporta, alegia), paisaien eraldatzea...

Eta santutegira helduko gara, silleria landua, gurutze-gangak eta kapitel historiatuak gordetzen dituen tenplura, Erdi Aroaren bukaerako Bizkaiko hargintzaren indarraren adibide bikainera.

El santuario de Andikona, testigo de cambios en el mundo rural

Visita guiada.

Andikona es el centro de una cofradía, una feligresía rural agrupada a su alrededor desde hace siglos. Recorriéndola nos acercaremos a la transformación del mundo rural a fines de la Edad Media: nacimiento de los caseríos tal y como hoy los conocemos, expansión de los cultivos, renovación de los molinos (visitaremos uno de ellos, Txanporta), transformación de los paisajes...

Y llegaremos al santuario, un templo de esmerada sillería, bóvedas de crucerías y capiteles historiados... Un magnífico ejemplo de la pujanza de la cantería vizcaína a fines de la Edad Media.

Topagunea: Ereña jatetxea (Ereña gasolindegia aurrean, Lekeitiorako errepidean).

Eguna eta ordua: larunbata 27; 10:00etan.

Antolatzaileak: Berrizko Udala, Gerediaga Elkartea eta Urkiola Landa Garapen Alkartea

Informazioa eta erreserbak: 688 632 284. europaondare@gmail.com. 946 033 938 / turismo@durango-udala.net (Durangoko Turismo Bulegoa).

Leku kopurua mugatua.

Punto de encuentro: Restaurante Ereña (delante de la gasolinera Ereña, en la carretera de Lekeitio).

Día y hora: sábado 27; 10:00 h.

Organizan: Ayuntamiento de Berriz, Gerediaga Elkartea y Urkiola Landa Garapen Alkartea

Información y reservas: 688 632 284. europaondare@gmail.com. 946 033 938 / turismo@durango-udala.net (Oficina de Turismo de Durango).

Plazas limitadas.

Bilbao. Arkeologi Museoa / Museo de Arqueología

Dorreak, elizak eta hiribilduak. Erdi Aroa Museoa

Bisitaldi gidatua.

1 300ean Bilbo fundatu zen urtean hasita, XVI. mendera arte, Bizkaiko historian zehar ibilaldia egingo dugu. Leinuen arteko borrokek garai korapilatsu haiek ilundu zituzten arren, ontzidiaren aparteko garapenak hain aro nahasiari argitasuna eman zion. Urte horiek hobeto ulertzeko, Arkeologi Museoko erakusketa-areto ezberdinetan ikusgai dauden Behe Erdi Aroko material ezberdinak ezagutuko ditugu, baita ikerlarien lanetarako biltegian gordetako beste batzuk ere.

Torres, iglesias y villas. La Edad Media en el Museo

Visita guiada.

Haremos un recorrido por la historia de Bizkaia desde el año 1300, fecha de la fundación de Bilbao, hasta comienzos del siglo XVI. Un tiempo complejo, con sombras, como las guerras de bandos, y luces, como el extraordinario desarrollo de nuestra marina. Para ello conoceremos los materiales que de la Baja Edad Media se conservan en las correspondientes salas de la exposición del Arkeologi Museoa. Pero también aquellos otros que se guardan en los almacenes, habitualmente reservados para el estudio de los investigadores.

Topagunea: Arkeologi Museoa (Mallonako galtzadak, 2).

Egunak eta orduak: larunbatak 6, 13, 20 eta 27; 13:15 eta 18:15etan.

Antolatzailea: Arkeologi Museoa.

Informazioa eta erreserbak: 944 040 990. *Leku kopurua mugatua.*

Punto de encuentro: Arkeologi Museoa (calzadas de Mallona, 2).

Días y horas: sábados 6, 13, 20 y 27; a las 13:15 y 18:15 h.

Organiza: Arkeologi Museoa.

Información y reservas: 944 040 990. *Plazas limitadas.*

Urbietako ontzi hondoratua eta XV. eta XVI. mendeko ontzi-arkeologia Euskal Herrian

Hitzaldia eta bisitaldi gidatua
Manu Izaguirre Lacosteren eskutik.

1 998an, Gernikako itsasadarren ibilguan, XV. mendeko Urbietako itsasontziaren hondarrak aurkitu ziren: 12 metro luze eta 2 metro zabal zituen ontzia, haize-oihalaz eta arraunez higitzen zena. Hauxe da Kantauri itsasoan aurkitu den itsasontzirik zaharrena.

Berreskuratze eta zaharberritze prozesu luzearen ostean, Arkeologi Museoa gaur egun ikusgai. Pieza paregabe honen laguntzaz, berreskuratze lanen zuzendariak, Euskal Herrian eta bere ingurunean XV. eta XVI. mendeetan aurkitutako beste ontzi batzuk azalduko du.

El pecio de Urbiet y la arqueología naval de los siglos XV y XVI en el País Vasco

Conferencia y visita guiada de la mano de Manu Izaguirre Lacoste.

En 1998 se descubrió en el cauce de la ría de Gernika el pecio de Urbiet, los restos de una nave del siglo XV: una pinaza de 12 metros de eslora y 4 de manga movida con remos y vela. El barco más antiguo hallado hasta la fecha en el Mar Cantábrico.

Tras un largo proceso de recuperación y restauración, sus restos pueden verse hoy en el Arkeologi Museo. Y con ayuda de esta singular pieza el director de los trabajos de recuperación del pecio nos explicará otras embarcaciones de los siglos XV y XVI hallados en el País Vasco y su entorno.



Topagunea: Arkeologi Museoa (Mallonako galtzadak, 2).

Eguna eta ordua: larunbata 20; 18:00etan.

Antolatzailea: Arkeologi Museoa.

Informazioa eta erreserbak: 944 040 990. *Leku kopurua mugatua.*

Punto de encuentro: Arkeologi Museoa (calzadas de Mallona, 2).

Día y hora: sábado 20; a las 18:00 h.

Organiza: Arkeologi Museoa.

Información y reservas: 944 040 990. *Plazas limitadas.*

Izen gabeko zalduna

Familientzako tailerrak.

Ba al zenekien burdin-jantzi batek 30 kilo pisatu ahal zituela? Eta 25 zati ezberdinek baino gehiagok osatuta zegoela? Eta zaldunek bi laguntzaile behar zituztela jantzi ahal izateko? Eta garabi baten laguntzaz igo behar zirela zaldira?

Bada, guk, zeure ezpata eta ezkutua sortzeko, zaldun bihurtzeko eta, 700 urtetan atzera eginez, denboran zehar Erdi Arora arte bidaiatzeko proposamena luzatu nahi dizugu.

Caballero sin nombre

Talleres en familia.

¿Sabías que una armadura podía llegar a pesar hasta 30 kilos? ¿Y que estaba formada por más de 25 piezas diferentes? ¿Y que los caballeros necesitaban de un par de ayudantes para ponérselas? ¿Y después de una grúa para subirse a los caballos?

Pues nosotros te proponemos construir tu propia espada y escudo, convertirte en un caballero y viajar en el tiempo hasta la Edad Media, hace 700 años.



Lekua: Arkeologi Museoa (Mallonako galtzadak, 2).

Egunak eta ordua: igandeak 14, 21 eta 28; 11:30etan.

Antolatzailea: Arkeologi Museoa.

Informazioa eta erreserbak: 944 040 990. *Leku kopurua mugatua.*

Lugar: Arkeologi Museoa (calzadas de Mallona, 2).

Días y hora: domingos 14, 21 y 28; a las 11:30 h.

Organiza: Arkeologi Museoa.

Información y reservas: 944 040 990. *Plazas limitadas.*

Bilbao. Berreginen Museoa / Museo de Reproducciones



San Antón zubia

Bisitaldi gidatua.

Bilboko San Antón zubiak iraganean merkataritzarekin lotura zuzena izan zuen.

Erlazio hori hain garrantzitsua izan da, ezen hiribildua, bizilagunen bizimodua eta zubia elkartu egin diren, osotasun bakar bat sortuz. Hiruren historia hainbestera lotu da, non San Antón zubia Bilboko ikur bilakatu eta hiribilduko armarrarian agertzen den. Orain zubiaren historia gertutik ikasteko, zeukan garrantzia ulertzeko, haren inguruko pasadizoak eta jasan dituen eraldaketak ezagutzeko..., azken finean, gure hiribilduari buruz gehiago jakiteko aukera daukagu.

El puente de San Antón

Visita guiada.

Bilbao siempre ha presumido y presume de su gran pasado mercantil.

Y en ese pasado el puente de San Antón ha jugado un papel trascendental. Tanto es así que la villa, su forma de vida y el puente se han convertido en uno solo. Su historia se ha entrelazado hasta hacer del puente de San Antón el símbolo indiscutible de Bilbao, figurando incluso en su escudo. Ahora tenemos la oportunidad de acercarnos a su historia, su significado, sus anécdotas, sus transformaciones... para conocer un poco más de cerca nuestra villa.



Topagunea: Artelan Berreginen Museoa.

Eguna eta ordua: larunbatak 6 (euskaraz), 13 (gaztelaniaz), 20 (euskaraz) eta 27 (gaztelaniaz); 11:30etan.

Antolatzailea: Artelan Berreginen Museoa.

Informazioa eta erreserbak: 944 150 231. Leku kopurua mugatua.

Punto de encuentro: Museo de Reproducciones Artísticas.

Día y hora: sábados 6 (euskara), 13 (castellano), 20 (euskara) y 27 (castellano); a las 11:30 h.

Organiza: Museo de Reproducciones Artísticas.

Información y reservas: 944 150 231. Plazas limitadas.

Bilbao. Eleiz Museoa / Museo Diocesano de Arte Sacro

San Anton Eliza

Bisitaldi gidatua.

Bilboko armarrarian ager-tzen den San Anton eliza ospetsua 1478an hasi zuten eraikitzen, zaharragoa zen beste tenplu baten gainean. Aurreko horren hondarrak presbiterioaren zorupean dauden beirateetan zehar ikus daitezke. Eliza gotikoa da, bere hiru habeartek, triforioak, gurutze-gangek, arku bikoitzeko arbotante ikusgarriek... erakusten duten bezala. Aldi berean, orubearen berezitasunei eta hiribilduaren merkataritza jardueren beharriari egokitzeko, berezitasun batzuk ditu: alde batetik, burualdean alaka bat dago itsasadarrean ur-goraldiak daudenean trabarik ez egiteko eta bestetik, dorrea eta portalea batu egiten dira zubi zaharrari lekua uzteko. Beraz, "inguruari egokitze" kasu bitxia da.

La iglesia de San Antón

Visita guiada.

La popular iglesia de San Antón, la del escudo de Bilbao, se empezaba a reconstruir en 1478 sobre otra anterior cuyos restos podemos ver a través de unas grandes cristaleras en el subsuelo del presbiterio. Es un templo típicamente gótico, de tres naves muy escalonadas, triforio, bóvedas de crucería, vistosos arbotantes de doble arco... Pero a la vez presenta ciertas particularidades para adaptarse al incómodo solar y a las necesidades comerciales de la villa: la cabecera hace un chaflán para no estorbar a las aguas de la ría cuando vienen crecidas; la torre y la portada se embuten para dejar espacio al antiguo puente. Un curioso caso de "adaptación al medio".



Topagunea: San Anton elizako ataria.

Egunak eta ordua: larunbata 6 (gaztelaniaz) eta 20 (euskaraz); 10:30etan.

Antolatzailea: Eleiz Museoa.

Informazioa eta erreserbak: 944 320 125. *Leku kopurua mugatua.*

Punto de encuentro: Pórtico de la iglesia de San Antón.

Días y hora: sábados 6 (castellano) y 20 (euskera); a las 10:30 h.

Organiza: Museo Diocesano de Arte Sacro.

Información y reservas: 944 320 125. *Plazas limitadas.*

Flandesko islak

Bisitaldi gidatua.

Eleiz Museoko erakusketak Flandesko moden eragin ar-gia duten gotikoaren azken aldiko arte higarriaren gakoak erakutsiko dizkigu. Artelanak, batzuetan, inportatutako arte-lanen bidez heldu zaizkigu eta besteetan, giro horretan trebatutako artistek ekarri dizkigute. Hogeita hamar bat pinturak, eskulturak eta zilarrezko piezek joera horren ezaugarri estilistiko eta ikonografiko esanguratsue-nak erakutsiko dizkigute, du-darik gabe, hauxe izan baitzen Bizkaiko artearen historiaren aro interesgarrienetako bat.

Reflejos de Flandes

Visita guiada.

La visita a la exposición del Museo Diocesano de Arte Sacro nos dará a conocer las claves del arte mueble de la etapa final del gótico. Un arte en gran medida influido por las modas flamencas, llegadas hasta nosotros unas veces a través de obras importadas, otras por medio de artistas formados en ese ambiente. Una treintena de piezas de pintura, escultura y platería nos mostrarán sus características estilísticas e iconográficas más representativas. Sin duda fue éste uno de los períodos más interesantes en la historia del arte vizcaíno.



Topagunea: Eleiz Museoa (Gizakunde plaza, 9b).

Egunak eta ordua: larunbatak 6 (gaztelaniaz) eta 20 (euskaraz); 13:00etan.

Antolatzailea: Eleiz Museoa.

Informazioa eta erreserbak: 944 320 125. *Leku kopurua mugatua.*

Punto de encuentro: Museo Diocesano de Arte Sacro (Plaza de La Encarnación, 9b).

Días y hora: sábados 6 (castellano) y 20 (euskera); a las 13:00 h.

Organiza: Museo Diocesano de Arte Sacro.

Información y reservas: 944 320 125. *Plazas limitadas.*

Bilbao. Euskal Museoa / Museo Vasco

Burdinaren lehenengo iraultza

Bisitaldi gidatua.

Museoko piezetako batzuk 1500eko Bizkaiaira hurbilduko gaituzte: janzkerak - Bizkaiko buruko ospetsuak bereziki -, marinel-jarduera, heriotza eta horri lotutako errituak... Burdinolen Aretoan amaituko dugu, zeina hamabost urtez itxita egon ostean, Ondarearen Europako Jardunaldiekin bat eginez, atek zabalduko dituen berriro. Bertan, bai Abadiñoeko Lebarioko burdinolaren maketaren, zein burdinezko objektu ezberdinen erakusketaren bidez, garai hartako goren aldiaren gaetara hurbildu ahal izango gara.

Nuestra primera revolución del hierro

Visita guiada.

Algunas piezas del Museo nos aproximarán a la Bizkaia del 1500: la indumentaria –especialmente las conocidas tocas vizcaínas–, la actividad marinera, la muerte y sus ritos... Y terminaremos en la Sala de Ferrerías, que tras permanecer cerrada al público durante quince años será reabierta coincidiendo con estas Jornadas Europeas de Patrimonio. En ella una maqueta de la ferrería de Lebario (Abadiño) y una muestra de objetos de hierro nos acercarán a la que sin duda fue una de las claves del auge de aquel período.



Topagunea: Euskal Museoa (Miguel de Unamuno plaza, 3).

Egunak eta orduak: larunbatak 6, 13 eta 20; 11:30etan (euskaraz) eta 13:00etan (gaztelaniaz).

Antolatzailea: Euskal Museoa.

Informazioa eta erreserbak: 944 155 423. *Leku kopurua mugatua.*

Punto de encuentro: Museo Vasco (plaza de Miguel de Unamuno, 3).

Días y horas: sábados 6, 13 y 20; a las 11:30 h. (euskeraz) y 13:00 h (castellano).

Organiza: Museo Vasco.

Información y reservas: 944 155 423. *Plazas limitadas.*

Erdi Aro bukaerako Bizkaiko irudiak

Hitzaldi zikloa.

Hiru hitzaldi ezberdinetan, 1500eko Bizkaiko bizi-moduari buruzko uneko irudiak erakutsi eta hein handi baten urte haietako goraldiaren oinarri izan ziren alderdi ekonomikoak azalduko dizkigute.

4 Osteguna: *Euskal lihoaren historia ezezaguna* (Jose Antonio Azpiazu).

11 Osteguna: *Bizkaia, itsasoa eta bizilagunak* (Juan Antonio Rubio Ardanaz).

18 Osteguna: *Burdinolen Ondarea Bizkaian* (Marta Zabala).

Imágenes de Bizkaia al final de la Edad Media


Ciclo de conferencias.

Tres conferencias nos mostrarán sendas instantáneas de la vida en la Bizkaia del 1500, aspectos económicos que en gran medida sentaron las bases de la expansión de aquellos años.

Jueves 4: *La historia desconocida del lino vasco* (Jose Antonio Azpiazu).

Jueves 11: *Bizkaia, su mar y sus gentes* (Juan Antonio Rubio Ardanaz).

Jueves 18: *El patrimonio ferrón en Bizkaia* (Marta Zabala).



Lekua: Euskal Museoa (Miguel de Unamuno plaza, 3).

Ordua: 19:30etan.

Antolatzailea: Euskal Museoa.

Informazioa: 944 155 423.

Lugar: Museo Vasco (plaza de Miguel de Unamuno, 3).

Hora: 19:30 h.

Organiza: Museo Vasco.

Información: 944 155 423.

Bilbao. Euskaltzaindia



Euskararen iragana eta oraina zertan den gizarteratzeko ahalegina egin nahi du Euskaltzaindiak, antolatu dituen jardueren bidez. Batetik, euskara euskal hiztunen behar berrietarako eguneratzeko lanak zertan diren azalduko da. Bestetik, Azkue Bibliotekan bildutako ondarea erakutsi eta ikerlarien eskura jartzeko arian-arian egiten den lana ere bistaratuko da. Azkenik, euskararen jatorriaz eta bilakaeraz hitz egiteaz gain, euskarazko izenak berreskuratzeko eta normalizatzen orain arte egin den bidea, azalduko da.

Asteartea 2:

- 10:00etan: Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka (bisita gidatua).
